

Ondarroako Kafe Antzokian egin dugu solasaldirako hitzordua. Sartu bezain pronto, irribarre zabal batekin agurtu dituhau diren eta kasu egin dioten hainbat bezero. Eta solasaldi ia osoan eutsi dio irribarre horri. Intsumisioak, batez ere, harrotasuna eta poza utzi diolako. Herri mugimendu haren bat-batekotasuna azpimarratu du mintzatzen hasi denean. Inork kontrolatu ez zuen mugimendua izan zela. Zabala, bai, baina norabide bakarrekoa. Irudimena eta umorea baliatu zituen, eta halaxe egin zuelako, herritarren elkartasuna eta sinpatia piztu zituen. «Zaila zen gurekin bat ez egitea». Alderdi txar bakarra nabarmendu du: gora egin eta gero, ia abiadura berean egin zuela behera. Derrigorrezko zerbitzu militarra bertan behera utzi eta gero, antimilitarismoaren borroka ikurrik gabe gelditu zela. Puxika baten modura zulatu zela.

Antimilitaristatzat du Uribek bere burua, oraindik ere, baina onartu du bera ere ez dagoela jada armaden aurkako borro-



ka zuzenean. Militarrekin lotutako balioen kontra, hala ere, bertze modu batera egiten duela erran du. Hau da, borroka moldeak aldatuz doazela, eta intsumisioaren aldeko kanpainaren eskutik orduko gazteek erakutsitako grina, akaso, egungo gazteei erakustea dagokiela. Hori dela dena zalantzan jartzeko tenorea. «Gazteek izan behar dute errebelde».

■ Eta Uribe gaztea halakoxea izan zen. Errebelde. «Hamasei urterekin-edo hasi nintzen kontzientzia hartzen. NATOri buruzko galdeketa egin zen garaian. Etxeko giroak lagundu zidan esparru horretan murgiltzen. Intsumisioaren aldeko kanpaina martxan jarri zenean, bete-betean aritu nintzen». Ondarroako Talde Antimilitaristarekin egin zuen bat Uribek. «KEMekoen eta Kakitzatekoen laguntza bagenuen. Mundu abertzaletik etorritako jendea ere bazen. Talde zabala zen». Hirugarren graduari uko egin zion garaia ekarri du gogora idazleak. «Basaurin 21 intsumiso ginen orduan, eta, haietako zazpi ondarrutarrak ginen; kasualitatez, 21 intsumiso haietako zazpi KEMekoak ziren, eta beste zazpi Kakitzatekoak; ondorioz, bozketetan Ondarroako intsumisook hartzen genuen erabakiaren zain egoten ziren beti».

■ Euskal Filologiako ikasketek Gasteizera eramane zuten Uribe, eta, ondorioz, hango intsumisoekin ere bat egin zuen. Kartzelan sartu eta hirugarren graduari uko egin berritan, hain zuzen ere, Arabako Foru Aldundiak saiakera saria eman zion idazleari, *Lizardi eta erotismoa* lanagatik. Saria jasotzera espetxetik atera zuten. «Kartzelako zuzendariak Badiola zuen abizena, eta Ondarroan senitartekoak bazituen. Oroitzen naiz bere bulegora deitu ninduela, eta saria jasotzera joateko bi aukera zirela esan zidan. Bat, eskuburdinak jarrita joatea zen, baina zuzendariak berak argi zuen hori eginez gero hautsak harrotuko zirela; ondorioz, sei orduz ateratzeko baimena eman zidan. Ez nuela ihes eginen agintzeko eskatu zidan. Nik hitza eman nion, eta euskalduna naizenez, bete egin nuen». Familiarekin goxatzeko baliatu zituen espetxetik urrun egoteko eman zizkioten orduak. Eta jasotako saria eskertzeko diskurtsoa, berriz, intsumisioaren alde egiteko.



Lehenbizikoz herrian atxilotu zuten Uribe. Bertze hainbat intsumisorekin batera, Guardia Zibilaren egoitzan kateatu zen. Hasierako kezka eta beldurra gogoratu ditu. «Halako zerbait egiten zen lehen aldia zen, eta ez genekien guardia zibilen erantzuna zein izanen ote zen, tiroka aterako ote ziren edo zer». Ez zen egun hartan tirorik entzun Ondarroan. Guardia zibilak ez ziren atera. Barruan gelditu ziren. Eta ertzainek egin behar izan zituzten atxiloketak. Intsumisoak ez ziren bakarrik egon atxilotzeko une hartan. «PPrena izan ezik, udaleko talde guztien babesa jaso genuen. Zinegotziak eta alkatea gure ondoan izan ziren. Polita izan zen».

Ez da hain samurra komisariatz duen oroitzapena. Herriatik Gernikara eraman zuten idazlea, eta handik Basaurira. Komisarian emandako orduetan sentitu zuen ezinegona fresko du buruan. Orduko bakardadea. Hurrengo urratsa zein izanen zen ez jakiteak eragiten zion kezka. Hirugarren graduari uko egiteko, Bilbon egin zuen Uribek plantoa. Bertze bost intsumisorekin batera, Frantziako kontsulatuan sartu zen, herri horrek Mururoan egindako proba nuklearrak salatzeke. Ekin tzak izan zuen oihartzun zabalak irribarrea eragiten dio aurpegian Uriberi oraindik ere. Plantoa egin aurreko eguneko askaria ere oroitzapen eder eta goxo bilakatu da idazlearentzat. «Kartzelan lotara sartu aurretik hirugarren graduaren intsumisook elkartu, eta merendu bikaina egin genuen. Handik espetxera joan ginen, eta hurrengo egunean atera eta gero, ez ginen itzuli».

Bigarren graduaren eman zituen zigorra amaitu arteko hurrengo hilabeteak Uribek, Basaurin. Familiaren eta lagunaren bisitak eta gutunak izan ziren esperientzia hartako zati garrantzitsua. Baina ez bakarrik, noski. Hasierako egunetako sententziak ekarri ditu Uribek gogora, adibidez. Kartzela, neurri batean, errealitateetatik kanpo zegoen zerbait zen lehendabiziko egun haietan. Indarrez egokitutako espazio berri bat. «Patioan, alde batetik bestera ibiltzen ziren gainerako presoak. Intsumisook, hasieran, biribilean ibiltzea erabaki genuen. Baina laster utzi



genion hori egiteari. Gu beste presoen gisakoak ginela konturatu ginen».

Bertze preso horiek, hain zuzen, intsumisoei buruz hagitz irizti ona zutela azpimarratu du Uribek. Eta bertze preso horiekin izan zuen harremana ona izan zela ere bai. «Jende jatorra zen. Espetxean, jendeak bere alderik onena erakusten du. Solidarioa da». Kartzelakoa mundu tristea badela gaineratu du idazleak, hala ere. «Kartzelak gizartetik ateratzen du jendea, baina ez du ezer egiten barruan diren pertsonen alde. Presoak bere kabuz egin behar du aurrera. Kartzelak ez du funtzionatzen. Gizarteak nahi ez dituen pertsonak tiradera batean sartzeko modu bat besterik ez da».

Espetxea ez zen biziki traumatikoa izan Uriberentzat, baina argia da esperientzia horrek utzi dion arrastoa. Kartzela eza gutu zuten intsumiso guztiei sumatzen zaie. Espetxeak utzitako oroitzapenik goxoenak, hala ere, intsumisioaren aldeko mugimendua jada maldan behera zirenekoak dira Uriberentzat. 1999. urtean sartu zuten barrura, berriz ere, hirugarren graduari uko egiteagatik ezarritako zigorra betetzera. Hilabete eman zuen Basaurin. Giroa ez zen samurra, intsumisioaren aldeko elkartasunaren uholdearen mailak nabarmen behera egin zuelako garai hartan, eta, ondorioz, kartzelan sartzeko urratsa egitea zailagoa zen. Barruan, hala ere, aldeko giroa aurkitu zuen. «HBko mahai nazionala barruan zen. Orduan atxilotu zituzten lehengo aldiz. Niri Tasio Erkizia egokitu zitzaidan ziegakide, eta oso oroitzapen onak ditut harekin emandako denboraz».

Hamar urtetik gora pasatu dira jada Uribe kartzelatik atera zenetik. Eta oraindik ere gogoratzen du intsumiso egin zenean ez zutela uste espetxera sartuko zituztenik. «Milaka gazte ginen intsumisioaren alde». Baina egin zuten. Eta intsumisioa kartzela bere alde baliatzeko gai izan zen. Soldadutzaren tresna militarismoaren aurka baliatu zuten bezala. Horregatik, derrigorrezko zerbitzu militarra bertan behera gelditu eta gero, mugimenduak behera egin izanak ez zuen askorik harritu Uribe.



Errealitate horrek ez luke lortutakoa bazter utzi beharko, gainera, haren ustez. Soldadutza bertan behera utzi izana ospatzeko moduko ekarpena izan zela argi du. Ospatzeko modukoa izan zela, halaber, borrokarako erabilitako moldea. Desobedientzia zibil ez-bortitza, alegia. Egun bide horrek hamaika aukera baduela argi du Uribek. Badela hamaika arrazoi desobedientzia zibilaren alde egiteko.

Harro da intsumisioaren alde egindako hautuaz Uribe. Garai hura idealizatzeko tentazioari eutsi nahi dio, hala ere. Intsumisioaren aldeko bideak, bertze anitzek bezala, izan zituen kontraesanak eta gatazkak bere barnean. Baina horien gainetik, desobedientzia zibilaren eta baketsuaren aldeko hautua egin zuen estrategia nagusitu zela argi du idazleak. Euskal Herrian izan zituen ezaugarri bereziak ezin direla ukatu argi du, halaber, nazio ikuspegiak indar berezia eman ziolako mugimenduari hemen.

Luze mintzatu da Uribe intsumisioaz. Bere esperientziaz. Kartzelaz. Borrokaz. Horri buruz idazteko ez da gai izan, hala ere, orain arte. Horixe onartu du. Espetxe barruan ere zail egi-ten zitzaion idaztea. Bai eta irakurtzea ere. Eta orain, espetxe-ko garai hartaz, intsumisioaz idazteko bidea oraindik ez duela aurkitu onartu du. «Kosta egiten zait. Uste dut noizbait idatziko dudala, baina oraindik denbora behar dut».